

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Vitoria-Gasteizen enplegu egonkorra eta kalitatekoa sustatzeko laguntza ekonomikoak emateko udal-programaren 2021eko deialdia finantzatzeko baliabide ekonomikoak handitzeari onespena emateko erabakia

2021eko abenduaren 16an egindako aparteko bilkuran onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizen enplegu egonkorra eta kalitatekoa sustatzeko laguntza ekonomikoak emateko udal-programaren 2021eko deialdia finantzatzeko baliabide ekonomikoak handitzeko proposamena. Honela jasotzen da erabaki horretan:

“I. Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko abenduaren 11ko erabakiz onetsi ziren Gasteizko Udalaren dirulaguntzetarako deialdiak arautzeko oinarri orokorrak 2021. urterako, eta horien 2. atalean zehazten dira aurreikusitako eremuak eta dirulaguntzen ildoak; horien artean, besteak beste, Prestakuntzaren, Enpleguaren eta Ekonomia Sozialaren Zerbitzuko 27. ildoak, Gasteizen enplegu egonkorra eta kalitatekoa sustatzeko laguntzei dagokiena (2020ko abenduaren 30eko ALHAO, 148.zenbakia).

II. 2021eko uztailaren 2an egindako aparteko eta premiazko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizen enplegu egonkorra eta kalitatekoa sustatzeko berariazko laguntzen 2021eko udal-programaren deialdia eta berariazko oinarriak. Deialdia 2021eko uztailaren 16ko ALHAOn (79. zenbakia) argitaratu zen, eta, guztira, 500.000,00 euro bideratzen ziren.

III. Tokiko enpresen aldetik eskabide asko jaso direnez, eta eskaerak jasotzeko epea 2022ko urtarrilaren 31ra arte zabalik dagoenez, argi geratzen da ez dagoela kreditu nahikorik 08 23 2411 4 8967 partidaren kontura —Enplegu egonkortasunerako laguntzak—.

2021erako onetsitako udal aurrekontuko 08 10 4331 2 2797 partidaren (“Toki Garapenerako Bulegoa: Dinamizazio Ekonomikoa”) soberakin ekonomikoa zegoenez, deialdiko 6. oinarrian (“Baliabide ekonomikoak”) ezarritakoaren arabera, 2021eko azaroaren 26ko idazkiaren bitartez Enplegu Ataleko buruak zuzkidura ekonomikoa handitzearen aldeko txostena eman zuen, ehun mila euro (100.000,00 euro) gehiago bideratuz aipaturiko aurrekontu partidaren kontura.

IV. Deialdiko berariazko oinarrien arteko 6.ak (“Baliabide ekonomikoak”) horren zuzkidura ekonomikoa handitzeko aukera ezartzen du, baldintza hauekin: “Guztira 500.000,00 euroko zuzkidura hori handitzerik izango da, Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia dela medio, udal sail horrek kudeatzen duen laguntzaren batean soberako krediturik badago, interes publiko, ekonomiko eta sozialeko arrazoiak tarteko”.

Horregatik, 2021erako onetsitako udal aurrekontuko 08 10 4331 2 2797 partidaren (“Toki Garapenerako Bulegoa: Dinamizazio Ekonomikoa”) badela soberako kreditu nahikorik egiaztatu da, aipatutako 6. oinarrian eskatutako terminoetan.

Gainera, Enplegu Ataleko buruak 2021eko azaroaren 26an emandako txostenean justifikatu bezala, interes publiko, ekonomiko eta sozialeko arrazoiak daude, beharrezkoa baita enpresei laguntzea kontratatzeko zuzeneko pizgarriak emanez hein handi batean osasun krisiak eragindako krisi ekonomikoaren testuinguru honetan, eta kontuan izanik likidezia eza enpresen arazo larriretako eta premiazkoenetako bat dela. Era berean, administrazio publikoek, bereziki udalek, herritarrengandik hurbilen daudenak baitira, premiazko neurriak hartzea bultzatu behar dute eragile ekonomikoek (enpresei zein langileei) egonkortasun eta laguntza handiagoa emateko. Batez ere kontuan izanik COVID-19aren pandemiak eta horrek ekarri duen krisi ekonomikoak markatutako aldiaren enpleguari eusteko ahalegin handia egin duten enpresak direla.

V. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.25) artikuluko xedatutakoaren arabera, udalerrien eskumen propioa da tokiko ekonomiaren eta gizartearen garapena.

Tokiko Gobernu Batzarrak du laguntza-deialdiak eta deialdien baldintzak onesteko eskumena, bai eta, beharrezkoa izanez gero, baldintzak aldatzekoa ere, bere egitekoa baita kudeaketa ekonomikoa garatzea, eta, beraz, Dirulaguntzen Plan Estrategikoa gauzatzea, Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 127. artikuluko 1.g) eta 2. ataletan –Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak emandako idazkuntzan– eta Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzak 5.1. artikuluan finkatutakoaren ildotik.

Beraz, 2019ko ekainaren 21ean eskuordetutako eskumenak baliatuz, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak erabaki-proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehena. Onespina ematea Gasteizen enplegu egonkorra eta kalitatekoa sustatzeko laguntzen 2021eko udal-programa finantzatzeko zuzkidura ekonomikoa ehun mila euro (100.000,00 euro) handitzeari; Tokiko Gobernu Batzarrak egin zuen programa horren deialdia 2021eko uztailaren 2ko erabakiaren bidez (2021ko uztailaren 16ko ALHAO, 79. zenbakia).

Horrela, Gasteizen enplegu egonkorra eta kalitatekoa sustatzeko laguntzen udal-programaren 2021eko deialdia finantzatzeko seihun mila euro (600.000,00 euro) bideratuko dira guztira.

Bigarrena. 100.000,00 euroko gastua esleitzea 08 10 4331 2 2797 partidako saldo erabilgarriaren kontura (“Toki Garapenerako Bulegoa: Dinamizazio Ekonomikoa”).

Hirugarrena. Erabaki hau udalaren webgunean eta ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko abenduaren 17an

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren
eta Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
IGNACIO CEPEDA CRESPO*